

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko martxoaren 8a

*

Etxe berriak Santa Lucian

■ Iruñeko Santa Lucia ijitoen bizileku izan da 70eko hamarkadaz geroztik. Barañaingo txabole-tatik ailegatu ziren bertara lehenengoak. 45 familiarentzako etxeak egin zituzten hasieran baina gaur egun hogei besterik ez dira bertan bizi. Santa Luciaren betiko itxura, hala ere, orain urte eta erdi aldatzen hasi zen, lehenengo zortzi etxe berriak egiteko proiektua martxan jarri zutenean. Lehenengoak bukatuta, gainontze-ko hamabostak eraikitzen hasiko dira aurki. Odette Corrella eta Joao Bautista eta Carlos Fernandez eta Magdalena Dosantos senar-emazteak etxe berrietan bizi dira euren familiariekin. Pozik dira baina Santa Luciatik kanpo pisu batean bizitzea da guztien ametsa. Amets hori egia bihurtzea, baina, ez da erraza, lana topatzea baita bertako ijitoen arazo nagusia. ■



Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Nerabea nintzela, nire kintako askok bezala, nik ere maiz entzun eta kantatuen B. Lertxundiren kanta. Halere, nekez ulertzen nuen letra. Hizkuntzaren gaineko nire ezagutza urria zen, eta zail egiten zitzaidan oriotarraren mezu ez-kutua harrapatzea. Abestia sinplea da egituraz. Galdera batzuk besterik ez ditu sortzen, duda ugariren artean, erantzunak airean utziz, entzuleak kantariarekin batera erantzun ditzan edo. Entzun dezagun: Aberri Askatuaren alde bonbaz hil duten ertzainaren ehorzketan *Eusko Gudariak* kantatzeari ekin diote hildakoaren senitarteko, alderdikide eta sindikatukideek. Bitartean, alargunak, begiak zeharo lausotu eta galdurik dituela, indarge eusten du eskuetan lurra jaso aurretik hilkutxa estaltzen zuen ikurrina. *Lepoan hartu eta segi aurrera* T. Monzonen hitzek puskatu dute piskanaka arratseko elizkizunean bildutakoen isila. Amaren bi aldeetan, bi seme koxkorak, hauek ere begiak malkotan. Aldian behin, telebista-kamarek begiratzen diete, euren kinka orori erakutsiz. Ez dute ezer ulertzen. Ez dira bakarrik. Aita Euskadiren alde

Zenbat gera?

izandako istripu batean zendu zela esango zien amak seguruko asko. *Zenbat gera? Lau, bat, hiru, bost, zazpi?* Ez dakit zenbat diren baina, milaka batzuk dira oraindik bizirik dirauten ertzainak. Eta heriotza merezi dute guztiek, zipaioak baitira. Aberria saldu dutenak bezain traidore zitalak. *Zer egin degu? Ezerrez. Zer egiten degu? Alkar jo. Zer egingo degu? Alkar hil?* Eta litekeena da; gaur, bihar edo etzidamu —ez bedi gerta, arren!— edo —gertatua al da honenbestez?— ertzaina hil duten hiltzaileenetako bat, edo agian, talde osoa, hilik gertatzea ere Ertzaintzarekin edo —A berdin B gisako berdinketa erlazioari jarraikiz— Goardia Zibilarekin izandako enfrontamendu batean. Eta orduan abian jarriko zen berriz ere, sorgin-gurpil zoroa, herri honen tragediaren antzeppen mingotsa. Eta berriro ere, *Eusko Gudariak* eta *Lepoan hartu eta segi aurrera*, hortzak estutuz, malkoak begietan, zanpatuen mina. *Gure asmoak, esperantzak, herria, askatasuna, justizia, pakea, egia, maitasuna... Mitoak, hitz hutsak?* Eta euskarak batzen gai-

tuen egia / gezur hori ere bai, eta Oteizaren haur berria, eta Nafarroa Euskadi deneko deiadar hura, eta ezker abertzalearen mugimenduak euskal eremura ekarriko zuen gizaki umotua... *Zenbat gera? Lau, bat, hiru, bost, zazpi?* Nafarroari dagokionez, euskaltzaletasuna eta euskal kulturaren adierazpideak gora joan diren neurrian, tantaka baina etengabe gainbeheratuz doa bi fenomeno horiek bultzatu dituen mugimendu politikoa. Botu-txartel bati beste bat gehitzearen erizpide matematikoa soilik erabiliz, bestelakorik ez baita egiterik egun, % 13an gaude joan den igandeaz geroztik. Nora joan ote da nafarren atxikimenduaren heren hura indar abertzalea eroso ibil zitezkeen? *Zer egin degu? Ezerrez. Zer egiten degu? Alkar jo. Zer egingo degu? Alkar hil? Hori ez! Hori ez! Hori ez!* Esan bezala, kanta xumea, sinpleziaz betea, ederra. Egundakoa azterketa sakon eta zalantzarik gabekoen aurrean ni bezalako inozo haundi batek egin dezakeen interpretazio bakarria. Egoera nahaspilatsuenetan ere sinpleziak bere ekarpena duelako.

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Arruta: Irulegiko irratia alde kontzertua izanen da bihar, Gari, Zazpi Eskale eta Irrintzina taldeekin. Emanaldia gaueko 23.00etan izanen da.

Burlata: Black Rose aretoan Los Cohetes taldeak joko du datorren asteartean. Kontzertua arratsaldeko 20.30etan izanen da.

Barañain: Luis Morondo musika eskolan Kamata eta Pokhanovskiren -Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketako bigarren eta hirugarren sariak- kontzertua izanen da, gaur, arratsaldeko 20.30etan.

ZINEMA

Tafalla: *Cinema Españolen Power Rangers* pelikula botako dute bihar arratsaldeko 18.00etan, eta, etzi, berriz, arratsaldeko 15.45 etan. Sarrera ehun pezetan izango da.

Barañain: Udaletxe aretoan *Asustias de mujer* pelikula eskainiko dute gaur. Emanaldia arratsaldeko 18.00etan izanen da doan.

ANTZERKIA

Mutiloabeiti: Oihulari Klown taldeak *Modelo clowntrapublicitaria* lana antzeztuko du kontsultorio-ko beheko solairuan, arratsaldeko 17.30etan.

Iruñea: Trokolo antzerki taldeak *A bombo y platillo* lana aurkeztuko du igandean Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 18.00etan. Sarrera 350 pezetan izango da.

BERTSO SAIOA

Altsasu: Burunda frontoian Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken kanporaketa izanen da igandean, arratsaldeko 16.30 etan. Honako bertsolari hauek ariko dira: Manolo Arozena, Oskar Estanga, Joxema Leitza, Jean Pierre Mendiburu, Iñigo Olaetxea eta Antonio Olano.

BESTELAKOAK

Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoko 07 gelan Latinoamerikako olerki emanaldia eskainiko du Ruka Domo taldeak. Saioa datorren asteartean izanen da arratsaldeko 18.00etan.

Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoko 08 gelan *Emakumea eta Hirugarren Mundua* hitzaldia emanen du Carmen Sarmiento kazetariak asteazkenean, arratsaldeko 19.00etan.

Etzarri-Aranatz: Inurrategi anaiek Cho Oyu eta Lhotsera egindako espedizioa diapositiba emanaldia eskainiko dute gaur, arratsaldeko 20.00etan.

Iruñea: Zapateria 50 kaleko aretoan literatura lesbikoari buruzko poesia eta kantu errezitala izanen da datorren astelehenean, arratsaldeko 19.30etan.

nafarkronika

Jon Alonso

Tunela

Haur bat besterik ez nintzela ere, askotan entzun nuen tunela egingo zutela, baina aita zenak beti erraten zigun ez berak ezta guk ere ez genuela ikusiko. Hala zioen orain aste gutxi Belateko bentako andreak, tunel berria gai hartuta, Nafarkariako txoko honetatik. Gure menditarren zuhurtasun ezaguna, ezinbestekoa, erranairuz, esaera zaharrez, atsotitez bete gaituena, proberbiala, beraz, hitza barkatzen badidazue. Basoko pagoa hostoz berdetzen ehundaka urte pasatu duenaren jakinduria osoa, betea, sekula huts egiten ez duena, are, huts egin ezin dezakeena, denbora bera bezain zaharra delako. Eta abar.

«Euskarak ez dik Iruñean aurrera egingo», esan zidan artikulu hura irakurri nuen egun berean nirekin hizketan ari zen larraundar batek, nor den esango ez dudana, harira ez datorrelako batez ere, baina ez orri hau irakurri eta zerbait esango didalako beldurrez, segur naiz eta paper hau ez zitzaiola martzianoago irudituko ingelesez idatzirik balego. Ez nion egoki erantzun. Lerdokeria batzuk esan baintuen, doi esan behar nuenaren orde: «hartara, ezta

Larraunen ere».

Errealista izatea doaia da, abantaila, gauza ona eta handia. Gauzak nolakoak diren eta nolakoak nahiko genituzkeen sekula nahasi behar ez diren bi kontu baitira. Horrela, adibidez, bat oso Osasunzalea izan daiteke, baina igandeko kinielan, etxean jokatzeko duelarik, kontrarioa oso ona bada, 2 jartzea komeni. Txiripa hutsez baino ez bada Osasunak gola sartzen badu kiniela izorratzen dela, bakarrik. Eta partidua aurrera ahala kanpokoak gola noiz sartuko zain. Eta azkenerako oso Osasunzalea izanik ere, kanpokoak irabaztea desiratzen; nork bere prebisioak eginda dituelarik, huraxe izaten da dena aurretik uste bezala ateradin eginahalik handiena egiten duena. Errealista izateak honelako gauzak badauzka. Eta zer esanik ez batek errealismoari goren mailako bertute irizten dioenean. «Sekula ez genuela ikusiko». Tunela laister irekita egongo da. Larraundarra eta biok euskaraz aritu ginen. Nik uste baietz, aurriritzia gaintutakoan, erabili egingo dutela. Tunela, diot.

Errealitatea bera baino errealistagoa izatea bezalako tunel beltzik ez dago.



asteko pertsonaiak



Luis Ibero
Herrilan kontseilari berria

Luis Ibero izanen da Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilari berria, Javier Otano lehendakariak horrela erabaki eta gero. Iberok, azken hilabeteetan gaixo egon den Florentino Lopez Isturiz ordezkatu du, eta gaur karguaren zina egingo du Nafarroako jauregian. Kontseilari berriak, postua hartu bezain pronto, orain arte betetzen zituen karguak eta lanpostua utzi beharko ditu. Iruindarra, Iruñerriko Ur Partzuergoko lehendakariordea da, Zizur Nagusiko alkatea, CDNko parlamentarioa eta Iruñeko Kutxako sukurtsal bateko zuzendaria. Berak azaldu duenez, hemendik aurrera zuzenduko duen saila berpiztu nahi du, eta, era berean, bere irudia aldatu.



Txemi Gorostiza
Abokatu

Entzutegi Nazionalak bigarren aldiz absolbitu du Txemi Gorostiza abokatu, kartzelan etakide batekin hizketan ari zela egin zioten grabaketak frogatzea gisa baliorik ez duela erabakita. Abokatu talde armatuari laguntzeaz zegoen akusatuta, 1993ko urtarrilean Alcalá Mecon ETako preso batekin izan zuen elkarrizketagatik. Gorostiza 1994. urtean epaitu zuten lehen aldiz, eta Entzutegi Nazionalak erabaki zuen grabaketak ez zuela baliorik frogatzea gisa. Ondoren, Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen epaia. Bigarren epaiketa duela bi aste izan zuen eta Entzutegi Nazionalak frogan balioa aztertzeko askatasuna azpimarratu du bere epaian. Beraz, baliorik gabe utzi du grabaketa osoa, eta Gorostiza absolbitu.

ahaztu gabe!



MARTXOAREN 8-A

Iruñea: Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta Koordinadora Feministak, Andreak, Lumatzak eta Emakume Internazionalistek hainbat ekitaldi antolatu dituzte astebururako eta astelehenerako. Gaur, martxoaren 8a izanik, manifestazioarako deia egin dute arratsaldeko zortzietarako. Gaztelu plazatik aterako da, eta Nafarroako hiriburuko kale nagusietan barna ibiliko da. Manifestazioa bukatu eta gero, afaria eta festa egingen dute Takonerako Vista Bella jatetxean bederatzita eta erdietatik aitzina.

Lasterka egitea gustuko duenak, berriz, badu aukera igandean. Aipatu taldeek Lilaketa, emakumeentzako lasterketa, antolatu dute. Korrikalariak eguerdian dute zita Gaztelu plazan. Parte hartu nahi duenak Andreaken egoitzan eman behar du izena. Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko prestatutako ekitaldiak datorren astelehenean akituko dira. Egun horretan, Lumatza taldeak antolatutako Literatura Lesbikoa lehiaketaren sari banaketa izanen da, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, Zapateria 50ean da goen aretoan.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Altsasu

Barañain

*

Bertsolari Txapelketa igandean

Berako finalaurrean ariko den zortzikotea ere Altsasuko saioan erabakiko da

Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren saioa izanen da igande honetan Altsasuko Kiroldegian, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Altsasuko kanporaketatik hirugarren bertsolari bat sailkatuko da zuzenean saio nagusirako. Berako finalaurrean zein zortzi ariko diren ere orduan jakinen da.

Kike Diez de Ultzurrun / Iruñea

GARIZUMA aitzinera doan heinean, Nafarroako Bertsolari Txapelketa ere aurrera doa, eta hurrengo lehiategia Altsasuko Kiroldegian izanen da, igandean. Arront saio garrantzizkoa dudarik gabe, hantxe jakinen baita zein den Berako finalaurrean ariko den zortzikotea. Dagoeneko bi izen badira: bata, Estitxu Arozena, lazko txapelduna; bertzea, Xabier Silveira. Altsasuko kanporaketatik hirugarren bat zuzenean sailkatuko da, eta, gainontzeko bortsak, hiru saioen artean puntuaziorik hobereana erdietsi dutenak izanen dira. Igandean emanen dute horren berri, jakina.

Atarrabiakoan Orabideako bertsolariak lortu zuen Goizuetan kantatzeko txartela. Barrean daukana eman gabe ere, Elizagoienek erakutsi zuen nor badela aisa xamar aitzinera jozteko. Silveirak, bere aldetik,



Altsasuko kiroldegian izanen da igandean Bertsolari Txapelketako hirugarren saioa.

ARTXIBOKOA

neurria gora-behera, bere baitan biltzen du espektakulua, ikusmenez gaizki dabilenak bere osotasunean harrapatuko ez duena. Zebaitendako zakarkara, bertze zebaitendako irri eginarazle, alde-aldeko jarrerak sortarazten ditu, kontra-kontrakoak ere bai. Estitxu Fernandez goitik dabil, Laka aurreko urteotan baino polikiago, Nerea Bruñoren meritua izugarria, eta Legarretaren iaio-tasuna ofizioetean, horiek oro dira aipagarri. Halaber, argi gelditu zen bertsolarien artean ez dela *mandozaharrik*. Paperotan bizi diren iratxo edo galtzagorriek

izenbururaino eraman zuten faunatik hartutako aipua, lerro artean zena azalera gorrian paratuz. Irakurle zintzoak baditu orri honek, behintzat, eta horrek bozkarioz betetzen gaitu.

Datorren jaietan, beraz, Altsasun. Josema Leitzak bertsoaren abiada pausatzen baldin badu, kasu, lana izanen dute gainerakoek. Dema polita ikusteko parada emanen digu, bertzalde. Izanez ere, horra hor Manolo Arozena eta Mendiburu beternoak, boneta beltza zer den aski ongi ezagutzen dutenak; Olaxearen urtea izanen al da? Jende

aunitzek egindako galdera da hori. Araiztik txapelketako bertsolaririk gazteena etorriko zaigu, Oskar Estanga alegia, Iruñeko bertso eskolan trebatua. Eta, azkenik, Antonio Olanoz, ba, ez jakinki zer erran, ez baita aukera handirik izan hondarreko urteotan egin duen bertsobidea eza-gutzeko.

Hitzordua, beraz, arratsaldeko lau eta erdietan herriko kiroldegian. Aurretik bazkaria izanen da Zubeztia elkartearen, ordu bietan. Txartelak salgai daude, 1.500 pezetatant, Bertsolari Elkartearen (22 82 32 telefonoan). X

Bera

Gaur Emakumearen Nazioarteko Eguna eta Bertsolari Txapelketa direla-eta ekitaldi ugari antolatu dituzte

Uxua emakume taldeko kideek afora egingen dute gaur Zalain jatetxean trikitilariak alaiturik

Jon Abril / Bera

GAUR ospatuko den Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, eta hurrengo astean Beran egingo den Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoa aitzakiatzat harturik, ekintza ugari prestatu dira datozen egunetarako.


Gaur bertan, arratsaldeko 19.00etatik aitzina, *Armas de mujer* filmea ikusgai izango da kultur etxean. Ondoren, 21.00etan, emakumeen afora izango da Zalain jatetxean. Berako trikitilariak alaituta.

Gainera, atzodanik irekita dagoen erakusketa ere ikusi ahal izango da. Berako emakumeek egindako lanekin osatu dute erakusketa. Gaur, 17.00etatik 19.00etara egongo da zabalik; bihar, larunbata, 11.30etatik 13.30etara eta 17.00etatik

20.00etara eta etzi, igandea, azken eguna izango da, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Ekintza hauek guztiak Uxua emakume taldeak antolatu ditu.

Bertsolari txapelketa • Baina hauetaz gain, bertzelako ekintzarik ere bada antolatua herrian. Martxoaren 17an, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoa Beran egingen denez, astelehen honetatik, saioaren eguna bitartean, Euskal Kultur Erakundeak osatu duen bertsolaritzaren inguruko erakusketa jarri dute Kultur Etxean, arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara. Erakusketa, bertsolaritzaren historiako datuek, argazki zahar zein berriek eta bertsoek osatzen dute.

Ortzegunean, iluntzeko 20.00etatik aitzina, Gure Txokoa



Andoni Egaña hitzaldia eskainiko du Beran.

ARTXIBOKOA

elkartearen, hitzaldia izanen da, Andoni Egaña eta Estitxu Arozena (Euskal Herriko eta Nafarroako txapeldunak hurrenez hurren) hizlari direlarik. Buka-

tzeko, igandean bertan, bazkaria izango da bertsolariekin lamotenean. Txartelak, 1.500 pezetaren truke eskuratu ahal izango dira Errekalde ostatuan. X

Haur Kantarien Txapelketa igande honetan abiatuko da

■ Nafarroako Kantuzaleen Elkarteak antolaturik, zazpi taldek eta bi bikotek hartuko dute parte

Erredakzioa / Iruñea

URTERO bezala eta Nafarroako Kantuzaleen Elkarteak antolaturik, Nafarroako Haur Kantarien Txapelketa abiatuko da igande honetan Barañainen. Saioa arratsaldeko lauak eta erdietan hasiko da, herriko kiroldegian.

Nafarroako Haur Kantarien Txapelketako lehen saio honetan zazpi talde eta bi bikote ariko dira lehian azken saiorako txartela eskuratzeko.

Iruñeko Iturruma Institututik Amaiur taldeak hartuko du parte Barañaingo saioan, Oskia Dominguez, Jon Ballaz, Haizea Harana eta Maitane Azpirozek osatutako taldeak, hain zuzen ere.

Bigarrenik, Altsasuko Iñigo Aritzta ikastolako Katakax taldeak abestuko du. Bertan izanen dira Itxasne Mundiñano, Izar Razkin, Amaia Larrea, Adriana Goikoetxea, Argine Etxeberria, Ainhoa Aragon, Erkuden Aldaz eta Maddi Aldaz. Jon eta Aitor Sarasua anaiei *Aquila Superba* kantatuko dute.

Hirugarren taldea Ilunberriko Arangoiti ikastolako Arangoiti izanen da. *Agurra* izeneko kanta abestuko dute Zuriñe Eslaba, Maite Ozkoidi, Imanol Vela eta gainontzeko taldekideek. Beraiek sorturikoa da abestiaren hitza. Ilunberriko Arangoiti ikastolatik ere Maite eta Patxi Ozkoidik osatutako bikoteak hartuko dute parte Barañaingo saioan. Ama izeneko kanta herrikoia abestuko dute. Ondoren, San Fermin ikastolako Ainara bikoteak hartuko du parte, *Maritxu nora zoaz* abestiarekin.

San Fermin ikastolatik, halaber, Mendibil taldea izanen da Barañainen. Xalbadorren *Haur batek bere amari* aukeratu dute partaideek. Beste talde batek ere hartuko du parte San Fermin ikastolatik, Zugari taldeak, hain zuzen ere. *Nundik ator, astoa?* kanta herrikoia abestuko dute. Leitzatik, azkenik, bi talde ailegatuko dira Barañainera, Nimiño eta Baserritar taldeak, alegia. Lehenengoak *Alaia* zu abestuko du. Kanta horren hitza Xabier Amurizak idatzitakoa da, eta doinua, berriz, Ducan eta Philips bikotearena da. Bigarren taldeak, bestalde, *Baserritar xahar bat* aukeratu du Haur Kantarien Txapelketako lehen saioan parte hartzeko. Abesti horren hitza Mattinena da. X

Etxe berriak
Santa Luciako ijitoentzat

Etxe berriak
Santa Luciako ijitoentzat

Santa Lucia, ijitoen aterbe

Zortzi etxe eraiki dituzte eta beste hamabost eginen dituzte

Estatu osoko eta Portugalgo ijitoen bizileku izan da 70eko hamarkadaz geroztik Iruñeko Santa Lucia. Egun hogei familia bizi dira bertan, eta horietako zortzi etxe berriak joan den hilaz geroztik. Datoren hilabeteetan beste hamabost eraikiko dituzte. Iruñeko edozein auzotako etxe bateara joan ahal izateko aurreko urratsa da Santa Lucia, baina oraindik benetako arazoa lana lortzea da bertako auzoko askorentzat.

Edurne Elizondo / Iruñea

SANTA LUCIA Estatuko hamaika izkinetatik eta batez ere Portugaldik etorritako ijitoen bizileku eta aterbe izan da 70eko hamarkadaz geroztik. Hasieran 45 familiarentzako lekua zegoen. Orain, berriz, hogei bat familia bizi da bertan.

Caritas eta beste hainbat talde erlijioso arduratu zen hastapenetan Santa Lucia. 1987. urtetik aurrera, berriz, Santa Lucia Fundazioak hartu du lan hori bere gain.

Santa Luciaren itxura aldatzen hasi da berriki. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, alokairu berezko zortzi etxebizitza eraiki dituzte bertako beste hainbat familiarentzako. Laster, beste hamabost eraikitzen hasiko dira.

Protektuaren lehen atala egin ahal izateko Nafarroako Gobernuak 60 milioi pezetako inbertsioa egin du. Horiak finantziatu ahal izateko dirulaguntzak jasoko ditu Santa Lucia Fundazioak, baita 20 urtean ordaintzeko eta interesa subentzionatua duen 45 milioi mailera.

Itxuraldaketa hasi bada ere, Santa Lucia oraindik betikoa da. Fundazioaren bulegoak daude sarrera ondoan, eta horien ondoan, berriz, bertan lan egiten duten bolondresen etxebizitza. Bulegoen aurrean, berriz, eliza. Baina Santa Luciaren adierazgarri den ezagarririk badago, bertako etxeak bi multzotan banatzen dituen aldapa luzea da.

Encarnacion Chia langile sozial eta bertako taldeko koordinatzaileak orain bi aste botatuko elurra gogoratu zitu berarekin gora abiatzen diren. «Etxetik ere ezin ziren atera, ezin baituzten aldapa izoztua jaitsi». Gaur egun, 20 familia bizi da Santa Luciaren baina 45entzako eraiki zituzten hasieran etxeak. Garai batean martxan jarritako haurtzaindegia eta eskola, berriz, aspaldi itxi zituzten eta aisiarako ekitaldiak egiteko erabiltzen dute orain eskola.

Aldapa igotzen hasi eta ezkerrean agertzen dira dotore eraiki berri diren zortzi etxebizitza. Kanpoan haurrak jolasean ari dira. Emakumeak ere kalean dira, elkarrekin hitz egiten. Horietako bat Magdalena Dosanjós da, Carlos Fernandez emaztea, portugaldarrak biak.

Pozik zabaldu dizkigu etxeak, baina sukalden alde batean eta bestean pilatzen diren tresnei argazkirik ez egiteko eskatu digu, «ez baitut txukuntzeko denborarik izan», dio irribarrea ahoan duela.

Olazagutiatik iritsi ziren Magdalena eta Carlos Santa Luciara orain dela 21 urte. «Hainbeste urte hemen?», galdetzen du Encarnacion Chiak, harrituta. Beranoenak omen dira.

Normalizazioa eta heziketa helburu • Carlos eta Magdalenen historia hamaika bider aldiz errepikatu da Santa Luciaren 70eko hamarkadaren hasierarekin batera lehen familiak alegatu zirenetik.

Barañaingo txabolak izan zituzten aurretik bizileku lehen urtean bertara alegatutako gehienek. Caritas eta beste hainbat elkarte erlijioso biltzen zituen patronatua izan zen hasieran Santa Luciako arduradun.

1987. urtean, berriz, Santa Lucia Fundazioa sortu eta bere gain hartu zuen bertako familien ardurua.

Joao Bautista: «48 urte ditut eta langabezia nago. Dirurik gabe ezinezkoa da Santa Luciatik atera eta pisu bat alokatzea»

Santa Lucian bertan fundazioak duen bulegoan hiru gizarte langilek eta bi hezitzailek egiten dute lan. Encarnacion Chia da bertako koordinatzailea eta bertan egiten duten lanaz mintzatu da gurekin. Lehenik eta behin, integrazio hitza baino normalizazio hitza nahiago duela garbi uzten digu. Santa Luciara ailegaten diren ijitoen normalizazioa lortu nahi dute, beraz, «Iruñeko edozein auzotako etxebizitza arunt batean bizi daitezten».

Normalizazioa helburu izanik, familia osoarekin lan egiteak duen garrantzia azpimarratu du Encarnacion Chiak bigarrenik, «familiak protagonista izan behar du prozesu osoan bere kideak hezi nahi baditugu, bestela, hemendik atera eta lehen bezala jarraituko baitute».

Iruñeko edozein auzotako etxe batean bizi. Hori da Santa Luciara ailegaten diren ijitoen azken helburua, eta baita bertako langileena ere. Hori dela eta, beraz, agiriak, osasuna edo eskolaratzea bezalako auziak dira Santa Lucian landu behar izaten dituztenak. Gai horiei aurre egiteko modua, hala ere, urteak aurrera joan ahala aldatu egin da. Hasieran Santa Lucian bertan haurtzaindegia eta eskola zegoen, bertako bizilaguntzat. Benetako normalizazioa lortzeko

modurik egokiena bertatik ateratzea zela ohartu ziren, ordea. Gaur egun Iruñeko bost ikastetxetan ikasten dute Santa Lucia 50 haur inguruk.


Osasunari dagokionez, emakumeekin egin dute lan batez ere Santa Luciako langile sozial eta hezitzailek. Famili planifikazioa landu dute bereziki. «Familia zabala da ijitoarena. 25 urteko neska gazte batek hiru edo lau seme-alaba izatea ohikoena da. Hasierako urteetatik gaur arte, hala ere, asko aurreratu dutela uste du Encarnacion Chiak. «Egun, adibidez, hemengo emakume askok erabiltzen dute DIUa. Ginekologoarengana ere malz joaten dira gehienak. Gutxi batzuk lotsatu egiten dira oraindik».

Lana eta etxebizitza arazorik larrienak • Magdalena eta Carlosek Santa Lucian 21 urte eman badituzte ere, normalean bitik eta lau urtera bitarteko epea ematen dute ijito familiek bertan. Santa Lucia, beraz, familia bakoitza bere kabuz etxebizitza arunt batera joan aurretiko urratsa da. Azken urtean Santa Luciatik eta Mujikako etxeetatik 25 familia atera dira Iruñeko auzoetara. Encarnacion Chiak azaldu digunez, oso esperientzia ona izan da, eta ijitoak pozik dira euren etxe berrietan. Auzokideekin, hala ere, izan dute arazorik, «ijitoak bertara joan aurretik. Beraien beldur ziren. Finean, kultura ezberdinekin bizitzea zer den ez baitakigu».


Ijitoak etxe berrietan direnez geroztik, ordea, ez dute inolako kezarik izan. «Ijitoek balio kultural ezberdinak dituzte, finean, eta horiek ezagutu eta errespetatu egin behar ditugu. Beste gauza bat da kultura eza dela-eta gertatzen diren beste hainbat arazo. Horiek heziketaren bidez konpondu behar ditugu».

Babes ofizialeko etxebizitza bat lortzea, hala ere, ez da erraza eta pisu bat erosi edo alokatu ahal izateko dirua ijitu gutxi du. «Ezplegua eta etxebizitza dira, beraz, gure arazorik larrienak. Orain arteko Atzeritarren Legeak, gainera, arazoak areagotu egin ditu, bertan bizitzeko baimena lortzeko lan kontratua behar baitute ijitoek eta lan kontratua edukitzeko, berriz, bertan bizitzeko baimena».

Santa Lucian diren ijitoek dagokionez, noizbehinkako lanak egiten dituzte gehienek; beste batzuk, berriz, ferietan ibiltzen dira uda garaian herriz herri. Kartoiak edo txatarrak saltzen ere irabazten dute diru apur bat askotokoz. X



Iruñeko bost ikastetxetan ikasten dute Santa Lucia. OSKAR MONTERO



Bere etxe berriko sukaldia erakusten digu Magdalena Dosanjós. OSKAR MONTERO



Joao Bautista eta Odette Corrella orain hemezortzi urte alegatu ziren Santa Luciara. OSKAR MONTERO

Etxe berrietan pozik

Alokairu apalak ordaintzen dituzte hango bizilagunek, baina hala eta guztiz ere larri ibiltzen dira

Edurne Elizondo / Iruñea

JOAN DEN hilaz geroztik Santa Luciako etxe berrietan bizi dira bertako zortzi familia. Laster gainontzeko hamabostak eraikitzeko obrak hasiko dira eta, lehen asmoen arabera, datorren urteko lehen hiruhilabetean bukatuko dituzte. Bitartean, Santa Lucia goialdean aspaldidanik hutsik ematen dituzte eraman behar izan dituzte beheko familiek euren gauza guztiak, behealdekoak bota egingo baitituzte.

Carlos Fernandez eta Magdalena Dosanjós senar-emazteak etxe berrietako batean bizi dira euren bost seme-alabarekin. Seigarrena Burlatan bizi da bere emaztearekin. Olazagutiatik alegatu ziren Santa Luciara orain 21 urte, Carlosek trenbidean lana aurkitu baitzuen. Egun, hala ere, pensionista da, ezin baitu lanik egin. Etxe berrian pozik dira eta beraz ere pozik erakusten digute. Beheko solairuan aurkitu ditugu sutondoan. Goian, berriz, logelak eta bainugela daude.

Etxe berrian 8.000 pezetako alokairua ordaintzen du Braganzako (Portugal) bikoteak. Argia eta ura ere euren kontu. Alokairua apala bada ere, estu-estu ibiltzen dira Carlos eta Magdalena familia aurrera ateratzeko, pentsioko 70.000 pezetekin bost seme-alabari jaten eman behar baitiete. Hori dela-eta, zail ikusten dute Santa Luciatik atera eta pisu bat erosi edo alokatu ahal izatea. Nafarroako Gobernuak aurki Babes Ofizialeko Etxebizitza

tzak eskuratzeko promozioa kaleratuko du eta Carlos eta Magdalena, beste hainbat urtean bezala, 36 pisuetako bat lortzen saiatuko dira. Izena eman dute dagoeneko. Magdalena, hala ere, ez du itxaropen handirik, «Santa Luciakooi puntu gutxi ematen baitzikigute», erran du ilun. Bere etxea eduki nahi duen bezala, Iruñea edo Nafarroan bizi

baino Portugalera itzuli nahiago duela azpimarratu du Braganzakoak. Herrimina, finean, Santa Lucian eman dituen urteak, hala ere, pozik eman ditu, nabarmendu duenez. Bere seme-alabak eskolara joaten dira eta horrek biziki poztzen du.

Carlos eta Magdalenen ondoko etxea da Joao Bautista eta Odette Correllarena, biak berdi-

nak. Portugaldik iritsi ziren Nafarroara bederatzik seme-alabekin. Etxean, hala ere, horietako sei bizi dira, gainontzekoak dagoeneko ezkondu baitira. «Hamabi biloba ditugu», gaineratu du irribarretsu Odettek. Nafarroan 33 urte daramatzate Joao Bautista eta Odette Correllak eta Santa Lucian, berriz, hemezortzi. Joaok eraikuntzan egin zuen lan urte askotan, baina orain, zortzitarrez, langabezia dago. Soldatarik gabe, onaritzko errentari esker bizi da Joao eta Odetteren familia —40.000 pezeta inguru—.

Sutondoan eserita, bere egoeratik kexu da Joao Bautista, «48 urte eta langabezia». Etorrizuna, gainera, ez du batera argi ikusten, eta pisu bat alokatzea berarentzat ia ezinezkoa dela azpimarratu du behin eta berriro, burumakur. «Hona alegatu baino lehen hiru hilabete eman genituen pisu batean, baina lanik gabe gelditu nintzen eta ezin izan genuen alokairua gehiago ordaindu. Handik alde egin behar izan genituen». Senarraren azalpenak adi entuzten dituen bitartean, buruarekin baietza egiten du Odette Correllak. «Inolako mediorik gabe, ezinezkoa da hemendik alde egitea. Eta eskerrak berak asko laguntzen digun, gaineratu du Joaok, begirada ondoan duen Encarnacion Chia Santa Lucia Fundazioko koordinatzaileari zuzentzen dioten bitartean. Arazoak konpondu bitartean, edonola ere, etxe berriarekin pozik dira Joao eta bere emaztea. X



Magdalena Dosanjós Carlos Fernandez senarrarekin. OSKAR MONTERO

Xanti Begiristain

Iruñerriko Mankomunitatea
eta euskara

■ Orain dela egun gutxi, gure euskaltegiak antolatutako txangoan parte hartu genuen batzuek. Ibilaldiak Artetako iturburura eta Egillorko tratamendu plantara eramanez gintuen hainbat ikasle eta irakasle. Orokorrean esan behar dut oso goiz polita izan zela, leku horietan ikusi eta entzun genituen gauza interesgarriengatik.


Jakina, joan ginenok euskara ikasle eta irakasleak ginenez gero, pentsatzekoa da izan genuen begiralea ere euskalduna izango zela. Izan ere, horrelaxe gertatu zen, adierazpen eta azalpenak eman zizkigun neskek euskaraz egin zuten.

Artetan eta Egillorren ikusi eta entzun genituen kontuak hantxe bertan askoz hobeki ulertu eta aprezia daitezkeen arren, hementxe saiatu behar dut azaleko aipamen soila egiten, irakurleak hobekixeago koka dezan bere burua. Lehen-lehenik, Artetako iturburu ondoan dagoen Ingurugiro-Heziketa Zentrura joan ginen eta bertan honako gauza interesgarri hauek ikusi-entzun ahal izan genituen audio eta diapositiba batzuen laguntzarekin: Artetako iturburua, Historia Geologikoa, Diapiroaren sorrera, Prozesu karstikoa, Iturburuko ura eta Kontserbazioa. Gela berean ere bazeuden panelak, maketak, paisaiak eta abar behatzeko eta irakurtzeko. Hor bukatu bezain azkar, atera baino lehen katalogo, foileto eta eranskailuren bat hartutakoan, berehalaxe joan ginen iturburura. Han ikusi eta entzun genuen guztiak ere aparteko interesa izan zuten, niretzat behintzat.

Berriro abiatu ginen autoetarantz, sartu eta aida batean iritsi ginen Egillorrera. Planta horretan, Artetatik heldu den ura tratatu egiten dute edangarriago eta osasungarriago bihurtzeko. Beste horrenbeste egiten dute Eugiko urarekin Urta-sunen, Iruñerriera eramanez baino lehenago. Egillorko tratamendu plantan, lehenik eta behin jarri ziguten bideozinta eder bat, gero azaldu ziguten plantaren maketa eta azkenik honako prozesu hauek ikusi genituen, alegia, aurre-klorazioa eta koagulazioa, flokulazioa-dekantazioa, lohien tratamendua, iragazketa, bilketa eta banaketa. Hitz gutxitan, plantako laborategian europar arautegiak exijitzen dituen parametro guztiak aztertzen dira uraren osasungarritasuna bermatzeko.

Baina badakizue mundu honetan dena ez dela izaten arrosa-bidea eta horrexegatik askotan protestatu eta kritikatzeko betebeharrean egoten garela. Ni, puntu honetaraino iritsitakoan egoera

horretan bertan aurkitzen naiz. Bai, Iruñerriko mankomunitatea ere ez da akasgabea, eta bidaia horretan frogatu ahal izan genuen Mankomunitate horrek ez diela denek *tratamendu* bera ematen; hots, urari eta pertsona erdaldunei oso tratamendu egokia ematen die, baina euskaldunoi ematen digun tratamendua arrunt txarra ez bada ere, egiaren izenean aitortu beharra dago euskarari bigarren mailako tratamendua ematen diola, hau da, ez dituela denak berdin eta berdintasunean tratatzen. Zergatik? Ba, begira, apunta itzazue bidaia horretan sumatu nituen euskararekiko desabantailak: Ingurugiro-Heziketa Zentruan gaztelaraz dena zegoen, baina euskaraz falta ziren idazpuru nagusiak, den-dena ez zegoen euskaratua, eta diapositiben euskal bertsoan



bat-batean, batzuetan, ageri ziren izenburu erdaldunak. Hartzeko zegoen material idatzialaren artean *Artetako lurrazpiko urak / Iturburua* soilik zegoen euskaraz; haatik *Ez alferrrik galdu denok behar duguna, Mankomunitatea*. 100 urte eta eranskailu bat erdara hutsean zeuden. Iturburuan ere, letrero guztiak gaztelaniaz baizik ez ziren ikusten. Hau guztia errepararazi nion neska begiraleari eta erantzun zidan aspaldian eskatu ziotela Mankomunitateari akats horiek konpontzeko. Ikusiko dugu noiz hartzen duten aintzakotzat gai hori. Bukatzeko, esango dut Egillorren ikusitako bideoan ere ageri zirela erdal idazpuru idatzia eta erakusgelan gauza guztiak zeudela espainieraz idatzirik eta euskaraz ez. Alabaina, Mankomunitatearen alde adierazi behar dut, zuzentasunaren izenean, gainerako letrero gehienak ele bietan zeudela, itzulpenak txukunak zirela eta neska begiralea adaitasun handiz aritu zela. Eta deformazio profesionala dela-eta, azpimarratu behar dut hiru toki horiek oztopo arkitonikoz beteta daudela. Erabilpen publikoak dira eta badute konpontzerik; ea bada. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Andres Poza
Iartzaren ekarri
zaharra

■ Andres Pozak bere burua Orduñarratzat eman bazigun ere, Behetik Lendoñokoa zehatzago izatearren, baliteke Pozatar leinuak euskal etorkikoa ez izatea. Nolanahi ere Orduñako uhartean jatorria ezartzen zuten Pozatarrek hasiera hasieretatik Flandesen bizitokia zuten sendi aberastua agertzen bazitzaigun. Ezagun da Andresen aita genuen Pedro Pozak Domingo Orbea izeneko diruzain bizkaitarrari, eta inolako interesik kobratu gabe, 15.000 dukateko abantzia egin ziola, etorki judutarra klarki sala lezakeena, eta azaldu behar ez diren arrazoiengatik ezkututzen saiatuko zena. Pedro Poza Maria Iartza bizkaitarrekin ezkondu zen, eta Andres 1537. urte inguruan sortu bide zen Amberesen. Bederatzi urtez Lovainako unibertsitatean ikasi ostean, legetako lizentziatura Salamancan eskuratu zuen. Ordurako hizkuntza aniztuna osora genuen Poza txikia, izan ere Euskaraz gainera, latina, espainiera, Flandesera, frantsesa, ingelesera eta italiara arazorik gabe baitzerabilzan. Berriz ere Amberesen, erregearendako egin zuten lana, bertakoan destaina berehalaxe bereganatu zuelarik, Guillermo Orangeren alde zeudenei aitzki hala nola protestanteen aurka hartu zituen neurriengatik batik bat. Atentatu bat ere jasotzen zuten, bere izate paranoikoa amiñi bat areagotu zuena, geroztik betiere zaldun albaniarrez osoturiko bizkartzaingoak lagundurik mugitzen zela. 1580. inguruan Bilbora buruz jo zuten kosmografia eta pabigakuntza irakasle. Noiz edo noiz ere Donostiako Santa Mariaren Klaustroko udal eskolan aritu zen, eta bere langintza berria hala edo nola hornitzeko *Hidrografía, sumario de la esfera, instrumentos de la navegación, mercas, latitud y longitud: la más curiosa que hasta aquí ha salido a la luz en que de más de un derrotero general se enseñan la navegación por altura y derrota y la del Este Oeste con la graduación de los puertos y navegación al Catayo por cinco vías diferentes* izenburuko eskuliburua ondu zuen, Bilboko Matias Marésen moldeetatik 1585. urtean elki zena.

Urte batzuk beranduxeago, eta Bilboko moldetegi berean, bere lanik ezagunena dateken *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria argitaratu* zen. 1587.eko idazki hau Diego Abendaño Ganboari eskaini zion, ganbotarren burua. Bertan Esteban Garibai Zamalloa arrasatearrak 1571.eko *Compendio historial* liburuan esandakoei jarraituz, tesi tubalisten defendatzaile zolia agertzen zaigu, vasco-iberismo delakoaren aurreko zuzena, eta kaldeoa penintsularen lehendabiziko hizkuntzatzat jotzen zutenen aitziki. Urte hauetatik ere Antonia Olaeta laudiotarrarekin ezkondu zen.

Bizkaiko pribilegioak begitan zintzenak ere bazeuden, eta Errege Katolikoek 1491.eko maiatzaren 30eko pragmatikaren iruzkintzeko aitazakiz, Valladolideko txanzilleriako fiskal orokorra zen Juan García Saavedrak 1588.ean bizkaitarren sortzeko noblezia ukatzen zuten *De hispanorum nobilitate exemptione sive ad pragmaticam cordubensem ageriu* zuten, hidalgia frogatzeko erizpideen behin betiko hatsarrea ezar nahian. Bizkaiko Batzar Nagusiek Pozari eskatu zitien ihardesteko, eta honek *Ad pragmaticas de Toro et Tordesillas sive de nobilitate in proprietate, animadversionum ad novum pragmaticae cordubensis, schollaste pro prisca alumnee suae patriae nobilitate izenburuko lanaz bete zuten mandatu*. Bertan euskaldunen jatorrizko noblezia defendatu zuten, eta ba omen da XVI. mendeko Bizkaiko liburu politikorik osotuena. Idazkia Felipe II.ari igorri zitzaion honek Garcíaren liburua jasotzeko aginduko zuten probisio bat atera zezala. Garcíak berak Jaurerriari barkamenak eskatu zizkion 1591.ean, Felipe II.ak bere liburuan agertzen ziren hitz iraingarriak ezabatzeko agindu eta gero.

Bizitzaren hondarreko urteak Madrilen eman zituen Pozak, Felipe II.ak berriki irekia zuten kosmografia eskolan irakasle 1595.eko urriaren 18an zendu arte. Hil aitzinean oraino *Memorial que se dirigió a Felipe II pidiendo la revisión de las leyes que favorecían la construcción de naos gruesas por ser contrarias a la navegación en general izenburuko lana* izkiriatu zuten. Ez omen zitzaion behar adina pagatzen, eta aniztatan eskatu zuten Indietako postua ez zioten sekula eman. Alabaina Juan Bautista semea bai Ameriketara joan zitekeela, nahiz bestelako arrazoiengatik, alia Bilbon 1588.ean sortu zen josulagundiaren teologo sonatu honek, ospe handiko lanen egilea izan ostean, Madrilen 1619.ean ageri zen *Práctica para ayudar a morir adibide, Elucidarium de parax Alcan. 1626.ean argitaratu zuten liburuan esaten zutenak zirela eta, inkisizioaren errieta gogorak jaso behar izan zituen, lana kalitu, zuten katadera litatu, eta Penura joanarazi ziolarik, non Cuenca izeneko herrian hil zen 1659.ean. ■*



Nafarroako banakako txapelketako bosgarren jardunaldiko partida, 1996ko otsailaren 17ean jokatu.

Jesus Cortes, 2.255 ELOkoa — Mariano de Pablos, 2.055 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,d6; 3.d4,Zf6; 4.Zc3,bZ-d7; 5.Ac4,Ae7; 6.0-0,0-0; 7.h3,c6; 8.a4,a5; 9.De2,Dc7; 10.Ag5,h6; 11.Ah4,g5.

Aurrerapen arrikutsua, piezak oso atzean daudelako.

12.Ag3,Zh5; 13.e5,e5; 14.Ah2,Zf4; 15.Af4,g-f4.

Irekiera hau ez da batere egokia, dama txuria berehalaxe erasoan jar daitekeelako.

16.Eh2,Zc5; 17.g3,Eh7; 18.Gg1,f5; 19.f4,f4; 20.aG-e1,e4; 21.Ze4,Dd7.

Ikus koadroa. Eraso saioa ez da garai egokian etorri. Zaldia aldatzea beharrezkoa zen. Txuriek, erruki gabe, ez dute barkatuko.

22.eZ-g5 xa,Ag5; 23.Zg5 xa,Eh8; 24.Dh5,Dd6; 25.Zf7 xa.

Beltzen hondamena erabatekoa da. Partida utzi zuten.





140 eskiatzaile inguru bilduko dira Belaguan.

ARTXIBOKOA

25 urte mendi eskia bultzatzen

Belaguako Goimendi Ibilaldia 140 mendi eskiatzaile bilduko ditu igandean

Mendi eskia eta Belagua ezagutarazteko lagun talde batek duela 25 urte sortu zuen Belaguako Goimendi Ibilaldia igande honetan egingo da Nafarroako Pirinioetako bazter honetan. Antolatzaileek ez dute urteurrena ospatzeko ezer berezirik prestatu, baina Erronkari izango da, beste urtebetez, mendi eskiatzaileen hiriburua.

Alberto Barandiaran / Iruñea

BELAGUAKO Goimendi Ibilaldi honen 25. urteurrenak ez du us-

tekabeen harrapatu Nafarroa Kirol Elkartearen mendi taldea. Duela lau urtetik hona ospakizun amaigabeen murgilduta daude mendizaletasuna Nafarroan bultzatu duen talde honetako partaideak, eta mendi eskia lotuta dagoen hau beste bat da, 1992an taldearen eta 1994an aldizkariaren 50 urteurrenak ospatu ondoren. Tartean, Angel Oloron aterberena. Ez da, hala ere, garrantziari dagokionez azkena mendi eskia.

Aterbeari esker Belaguak bere atek jende askori zabaldu baldin badizkio mende honen hondarreko laurdenean, ez da gutxiago izan goimendi ibilaldiak ireki dituen begiak, batez ere mugaz gaindiko eskiatzaile eta mendigoizaleen artean. Oraindik

egun, 25. edizioarekin, taldean aipatzen dute eskiatzaile askoren harridura Erronkariko txoko hau lehendabiziko aldiz ezagutzen dutenean. «Pirinioetan, batez ere Huescan eta Katalunian» azaldu zuen Alfredo Serrano Nafarroa Kirol Elkartearen lehendakariak ibilaldiaren aurkezpen egunean, «ohituak daude 2.500 metrotik gorako parajeekin, eta ez dute uste 2.000 eta 2.500 metrotan —Belaguako altura— mendi eskia egiteko aukera handia egongo denik. Horregatik, zoratu egiten

dira txoko honen aukera paregabeak ikusten dituztenean».

Horrek egin du Belagua zaletu guztiendako asegarri, eta badira urtez urte hutsik egiten ez dutenak. Kopurua mugatu behar, nolahi ere, Angel Oloron aterbeak eta Izaban bertan dauden ostatuak gainezka daudelako ibilaldiaren egunean. Aurten ere antolatzaileek aterbetu dezaketen baina jende gehiagok parte hartu nahi izango du, baina azken urteetako muga —140 eskiatzaile— ezin dute igo oraingoz.

Lehen urtean, elur-jausia

MENDE laurden batean denetarik jazo daiteke: elur-jausiak, istripuak, ezin konta ahala gertaera, milaka pasadizo... Lehen urtea, 1971n Izabatik gotti lehen zeharkaldia antolatzen tematu zirenek ezingo zuten asmatu, ezta gutxiagorik ere, hogeita bost urte pasata Pirinioetan egiten den garrantzitsuenetakoa izango zela. Harritu egingo ziren, horrela, hasieratik mugak paratu behar izan zituztenean izena eman nahi zuten jendearen aurrean, denentzako toki nahikorik ez zegoen eta. «Arrakasta izugarria izan zuen zeharkaldiak lehen urtetik» azaldu du Carlos Iribarrenek, «eta hori da orduz geroztik aldatu ez den gauza bakarra».

Iribarren, lagun talde batekin, izan zen orduko bultzatzailea. ◆ Mendi eskia ordurako

ezaguna zuten han eta hemen praktikatu eta gero, eta, Angel Oloron aterbea eraiki berria, Pirinioetako Nafarroako muturra mendigoizaleen artean ezagutarazteko modu ona iruditu zitzaizen zeharkaldia antolatzea: Belaguako I. Rallya izendatu zuten. Elurra eta ingurua izango zen gaur egungoarekin pareka daitekeen bakarra, Iribarrenek gogoratzen duenez orduan materiala eta prestakuntza arrunt bestelakoak zirelako. «Finkapenak, itsastxakur narruak, taulak ere, dena zen desberdina, eta Frantzia erosi behar izaten genuen materiala, hemen ez zegoelako nahikoa eskaintzarik». Lehendabiziko urtean, esan bezala, arrakastatsua izan zen oso deialdia, eta 60 bat lagun ateratu ziren goizean goizetik aterbetik.

Elur-jausiak eskiatzaileak harrapatu zituen Lakorako ipar aldean eta bertan behera utzi behar izan zuten rallya. «Ez zen gauza handirik izan» gogoratu du Iribarrenek, «baina elur-jausiak beti ikaratu egiten du apur bat. Batzuk gelditu ziren erdi lurperatuta, elurra gainean, baina ez zen ezer gertatu. Makila batzuk galdu ziren, ez besterik». 25 urte hauetan ez da beste istripu azpimarragarrikerik gertatu, eskiatzaileek hartzen ohi dituzten kolpeak izan ezik.

Hasierako urteetako rallyek jende franko erakarri bazuten ere, beraiekin batera ekarri zuten Belaguara beste tokietan oso zabaldua zegoen lehiarako zaletasuna, eta horri berehala moztu zuten antolatzaileek. «Jende askok» dio Iribarrenek «batez ere Kataluniatik

zetozen eskiatzaileek, lehia zuten gustuko, eta hori guk beti arbulatu izan dugu. Nahikoa gogorra da berez kirol hau oraindik gogorragoa egiteko eta guk nahi genuen jendea lasai joan zedila, gozatu egin zedila mendiarekin». Beraz, laugarren edizioan Belaguako Goimendi Ibilaldia izena paratu eta lehia zuten kutsu oro kendu egin zuten. Geroztik garbi azaltzen da arautegian norbaitek laguntza behar izanez gero, lehiakideak prest izanen direla ezbeharrak jaso duenari laguntzeko.

Akaso honek egin du ibilaldi hau hain erakarri eta ospetsu. 25 urte pasata, gazteek hartu diete txanda Belagua ezagutarazteko behin rally bat lehendabiziko aldiz antolatu zutenei. Bete-beteen asmatu zuten. X



Zeharkaldiak 6 eta 8 ordu bitarte iraungo du.

ARTXIBOKOA

Horrelako antolakuntzak dakarren lan handia modu onez burutu ahal izateko taldeko lagunez baliatzen da Manolo Muñoz koordinatzailea eta ahalegina ez da makala, Serranok aipatu zuenez. «Kontrolguneetan egon behar duenak mendian eman behar izaten du gaua, eta hau guztia ezinezkoa izango zen borondate hutsez ariko ez bagina, gure taldeak ezingo zukeen bestela eskatzen duen lana aurrera eramane». Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuko eta hainbat etxe pribatutako dirulaguntza erabakiorra eskertu zuen Serranok.

Aurten botatako elurak inoiz baino erakargarriago egin du ibilaldia. Belaguak aspaldiko geruzarik —kalitatez eta kantitatez— onena du, eta eguraldiak laguntzen badu —arazoak izan dira errepidea irekitzeko— egun handia izango da. Ohi bezala, ibilbidea aterbetik aterako da goizeko zazpiak aldera, elur-jausia ahal den neurrian sailhesteko, eta toki berean amaituko da. Ibilbide zenbait dauzkate buruan antolatzaileek, eta azken erabakia bezperan hartuko da, eguraldia eta elur kopurua aztertu ondoren. Partaideek alde aurretik seinaturiko biderei jarraituko diote, eta iraupena 6 eta 8 ordu bitartekoa izango da. Markaturiko bidetik ateratzen diren eskiatzaileek ez dute bazkariaren ondotik egingo den zozketan parte hartuko. Partaide orok eraman behar du ondo zehaztuta dagoen materiala: motxila eta pioleta, kranpoi pareak, soka, iparorratza, linterna, mendi eskiko materiala, mosketoia, kaskoa eta zintazko lokarria.

Ez da ezer berezirik egingo 25. urteurrena dela-eta, baina antolatzaileek egun bat aukeratu dute aterbean bertan bildu eta euren kasara data gogoangarri hau ospatzeko. «Geure artean ospatuko dugu» esan zuen Serranok, «mendigoizaleen artean horrela egiten direlako gauzak: isil eta lagunartean, geure gauzei buruz solasteko».

* ◆ Tere Saez ◆ Andrea-ko kidea

«Mutil gazteak nahastuta dabilta»

Koordinadora Feministak, Andreak, Lu-matzak eta Emakume Inter-nazionalistek antolatuta, hainbat ekitaldi izan dira aste osoan emakumearen inguruan. Gaur arratsalde-ko zortzietan kalera atera-ko dira denak, Emakume Langilearen Nazioarteko Egun honetan. Bertan izanen da Tere Saez Andrea taldeko kidea ere.

Edume Elizondo / Iruñea

ANTOLATUTAKO ekitaldien artean hitzaldia eskaini zuen Maria Angeles Marqueño psikologo eta sexologoak asteartean. Zapateria 50eko gela beterik zegoen. Hizlariaren ondoan Tere Saez Andrea-ko kidea aurkitu genuen, eta berarekin mintzatu ginen valentziarraren hitzaldiaren ostean.

■ **Martxoaren 8a hemen dugu berriro. Aurten zer eskatzen dio Andrea-k Emakume Langilearen Nazioarteko Egunari?**

Gairik latzenak kaleratu nahi izan ditugu aurten, hau da, emakumeek pairatzen duten ezberdintasun egoeraren barruan ezberdintasunik larriena pairatzen duten emakumeen errealitatea. Gaur egun, hain zuzen, halako egoerak ez luke existitu beharko. Zertaz ari gara? Bikotekidearengandik banatu edo tratatu txarrak jasan eta salatzen dituen emakumeak, egun, ez du bizi ahal izateko dirulaguntza minimoa jasoko duen garantiarik, ez du lanik eta ez du berarentzat eta seme-alabentzat etxebizitzirik. Honetarako konponbiderik ez dago oraindik. Honekin batera, mahai gainean jarri nahi dugu berriro etxeko langileen legearen eztabai Nafarroan, adibidez, 7.000 emakumeek egiten dute lan

hori, eta egungo legea beraientzat guztiz iraingarria da. Emakume anitzek pobrezian murgilduta jarraitzen du ondorioz.

■ **Ildo horretan, txirotasunaren feminizazioa ere aipagai izan duzue.**

Bai. Finean, emakumeek oraindik ere estimatzen ez diren lanak egiten dituzte. Emakumea aipatzen dudanean, noski, kolektibo jakin batez ari naiz. Hau da, badakigu emakume mota asko dagoela, batzuek boterea dute, beste batzuk aberatsak dira, denetarik dago. Guk oraindik ere marjinatuta dauden horietaz hitz egin nahi dugu. Etxeko langileak edo sukaldariak dira, edo garbiketa enpresa batean egiten dute lan eta abar. Lan horiek guztiak gaizki ordaintzen dituzte eta ez dute inolako baliabiderik. Gainera, lan horiek egiten dituzten emakume askok seme-alabak dituzte eta bakarrik bizi dira. Hala ere, ez dituzte beharrezko zerbitzu sozialak eskuratzen.

■ **Estatistikek aipatzen dutenez, emakumeak dira langabeziak nabarmen ukitutako sektorea. Martxoaren 8a ere ezin ospatu duen emakume anitz dago, beraz, oraindik. Nafarroari dagokionez, bertako emakumeen egoera nolakoa da zure ustez?**

Nire ustez lan gehiago dago, baina baldintzak ez dira batere onak, hau da, hilabete bakan batzuetarako lana da, edo egun erdikoa. Halako enplegu mota egin ondoren, gainera, langabezia ere ezin dute kobratu emakumeek. Beraz, ez da egia emakumeak gero eta lan gehiago egiten ari direla; lan merkatuan gero eta emakume gehiago dago, bai, baina nolako merkatuan? Hori da funtsezkoa.

■ **Mugimendu feministak urte askotako historia du eta aurrerapauso anitz eman dira. Borrokari hasiera eman zioten emakumeen eta gaur egungo neska**



Andrea-ko kidea da Tere Saez.

JOXE LACALLE

gazteen errealitatea ezberdina da. Nola ikusten duzu zuk feminismoaren etorkizuna?

Printzipioz zaila da etorkizuneari zer gertatuko den erratea. Hala ere, itxaropena izateko arrazoiak badaudela uste dut. Nire ustez, gaur egungo emakume gazteek guztiz barneratuta dute gizaki autonomoa izateko, aukeratzeko eta erabakitzearen eskubidea. Beraz, bizitasuna eta aberastasuna ekarriko dute. Finean, hori da feminismoa.

■ **Eta mutil gazteek dagokionez?**

Nire ustez, mutil gazteak erabat nahastuta daude. Izan ere, egungo neska gazteek duten emakumearen errealitatea eta gu gure gurean genuena erabat ezberdina dira, gaur egun emakumea edozein lekutan ikusten dute. Mutilek, berriz, ez dute halako errealitatea. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak

dagokionez, beraz, egungo emakumearen osagarri den errealitate ez dago. Mutil gazteek, beraz, ikasteko lan egin beharko dute.

■ **Berdintasunaren aldeko borroka aurrerapausoak eman arren, Jose Maria Felez Nafarroako fiskalburuak egindako memoria eta antzeko gertakizunak ere badaude. Ez al duzue etengabe aurrera eta atzera ari zareten irudipena?**

Nire ustez, emakumeak gero eta barneratuagoa du hainbat eskubide aldarrikatzeko duen aukera. Aurrerapausoa batez ere alor horretan gertatu dela uste dut. Noski, gizarte oro har beti ari da mugitzen eta gizarte barruan ere ideia ezberdin asko dago. Nafarroan, adibidez, Felez fiskala dago; abortuari dagokionez, ulertezina da abortatu nahi duen

soslaia
Andrea Emakumearen Atentziorako Zentroa orain dela lau urte sortu zen Iruñeko Alde Zaharrean. Alde batetik, aholkularitza lana egiten dute bertako langileek; bertara jotzen duten emakumeen arazoak entzun eta ahal duten neurrian lagundu egiten dituzte. «Abokatuak eta psikologoak daude horretarako». Bestetik, formakuntzarako alorra dago eta hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen dituzte.

Tere Saezek zentroa zabaldu zenetik egiten du lan Andrean. Elkarte eta talde hauek garrantzitsuak direla uste badu ere, ez da bere ustez berdintasunaren alde borrokatzeko modu bakarra. «Egunero eta bakoitzak bere eremuan lan handia egiten duten emakume anitz daude».

Urtero bezala Iruñeko karririk zeharkatuko ditugu gaur ere 'Feminismoa bizirik' lelopean. «Martxoaren 8 honen beharrik ez izatea izanen litzateke onena baina gaur egun, oraindik, beharrezkoa da». Halaber, egun hau bere alde erabiltzen duen jende asko dagoela uste du Tere Saezek.

emakumeak 50.000 pezeta ordaindu behar izatea. Hor dauden errealitateak dira hauek, baina garrantzitsuena emakumeek aurrera jarraitzen dutela da. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko funtsezkoena gu berau defendatzeko gai izatea da, borrokatzen jarraitzea. Beti egonen da Felez bezalako bat eta abar, baina okerrera hortien aurkako erantzunik ez izatea izanen litzateke, eta egun erantzunik badaude.

■ **Feminismoa bizirik leloa aukeratu duzue Martxoaren 8 honetan kalera ateratzeko.**

Eta bizirik dago. Etxetik atera eta emakumeak edozein lekutan ikusten ahal dira gaur, denetarik gauzak egiten. Beste gauza bat da feminismoa hitza askotan nola erabili izan duten. Esanahia, ordea, edukia, bizi-bizirik dago eta aurrera doa.

«Egungo neska gazteek guztiz barneratuta dute gizaki autonomo izateko, aukeratzeko eta erabakitzearen eskubidea»

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
-11-
GAUR:
INSCRIPTION
IX
F. Pessoa

"ISILTASUNA BAKARRIK ORAIN
ZIUDEDE ZAHARRA ZEGOEN LEKUAN"

"FESTETAKO GONBIDATUAK HAREA GARA.
KONDATU DA ISTORIA."

"URRUN ZALDI
OINOTSAK ISILDU."

"BELARRA HAZTEN DA ORDIMENIK ERE
EZ DAGOEN LEKUAN"

"OSTATUKO
AZKEN ARGIA ITZALI."

